

IRAKASLE ATXIKIAREN ZIURTAGIRIA ESKATZEKO LAGUNTZA-GIDA

Gasteizen, 2009ko urrian.

AURKIBIDEA

1. BALDINTZAK NOLA EGIAZTATU	03
2. PROZEDURA	04
1. Eskariak aurkezteko epea	04
2. Derrigor aurkeztu beharreko agiriak	04
3. Eskabideak non aurkeztu?	04
4. Aurreko deialdietan aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, berriro aurkeztu beharra al dago?	04
5. Egiaztapena aplikazio informatikoan gordetako merezimenduei eta dokumentazioari dagokienez, posible al da datu horiek hartzea ikerketa-egiaztapena aplikazio berria betetzeko?	05
6. Aurreko egiaztapen deialdian aurkeztutako eta aurkako txostena edo ebaluazio negatiboa lortu zuten eskatzaileek berriro figura berera aurkeztatu nahi badute, berriro bete behar al dute aplikazio berria (egiaztapena 2009)?	05
7. Egiazkotasun aitopeneko dokumentuak jatorrizkoa behar al du izan?	05
8. Figura batera baino gehiagora aurkez al naiteke?	05
9. Aurreko deialdietan aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, berriro aurkeztu beharra al dago?	05
10. Zeintzuk dira erabiltzen diren ebaluazio irizpideak	06
11. Eskari-egileei ebazpena noiz-nola bidaliko zaien	06
3. MEREZIMENDUAK NOLA AZALDU	06

1. BALDINTZAK NOLA EGIAZTATU

KONTRATAZIO-MOTA BAKOITZERAKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Ebaluaketa egin diezazuegun, deialdian jasota dauden baldintzak bete behar dituzue. Hortaz, baldintza horiek betetzen dituzuela egiaztatzeako agiriak ekarri behar dituzue, espedientearen hasieran.

Kontratazio-mota bakoitzerako beharrezko baldintzak bete ezean, Uniqualek gutun bat bidaliko dizue, okerra zuzen dezazuen (baldintza horiek Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legean jartzen duen bezala bete behar dira). 10 eguneko epea izango duzue okerra zuzentzeko, baina falta zaizkizuen agiriak ekartzen ez badituzue, zuen eskaria atzera botako dugu. Hala bada, Uniqualek formalki jakinaraziko dizue, zuzendariak sinatutako ebazpen baten bidez.

Irakasle atxikiaren modalitatea kontratatzeako ebaluazioan, doktore-titulua edukitzea eta egiaztatzea bi urtez, gutxienez, ez duela Euskal Herriko Unibertsitatean kontratuzko edo estatutuen araberrako harremanik izan edo bekadun gisa jardun, eta, denbora-tarte horretan, unibertsitate horrekin loturarik ez duten zentroetan irakasle- edo ikerlari-lanak egin dituela edo doktore-titulua beste unibertsitatearen batean eskuratu duela.

Baldintza horiek honela egiazta daitezke:

- Zerbitzu-orriaren kopia original bat.
- Irakasle-lana eta ikerketa-lana egin duzuen unibertsitateko edo unibertsitateetako egiaztagiria originala, gauza hauek adieraziz: kategoria, dedikazio-orduak eta noiztik noiz arte egin duzuen lan hori, edo
- Kontratuaren kopia bat, eta kontratu horren etena egiaztatzen duen agiriaren beste bat.
- Bekadunen kasuan, beka jaso izana egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia, bertan noiztik noiz arte eta non garatu zen lana adierazten dela.

2. PROZEDURA

1. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Kasu honetan, deialdia 2009ko azaroaren 5ean argitaratu denez, epea 2009ko abenduaren 6an amaituko da.

2. DERRIGOR AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1. Lehenengo atalean zehazturik dauden baldintzak betetzen dituzuela egiaztatze agiriak.
2. Eskabide-orria edo CV normalizatua (nahi baduzue, aplikazio informatikoa erabili: www.uniqua.org, edo are eta zehatzago, www.egiaztapena2009.uniqua.org orrian; eta, nahi baduzue, azaroaren 5eko EHAako eranskinetan jartzen duen bezala.
3. Aurkeztutako agirien zerrenda, eta egiazkoak direla adierazteko agiria.
4. NANaren fotokopia.
5. Unibertsitateko titulua.
6. Doktore-titulua.
7. Espediente akademikoa.
8. Instantzian edo CVn adierazitako merezimenduen egiaztagirien fotokopia.

Ebaluaketa-prozesuan, gerta daiteke eskari-egileari informazio gehiago ekartzeko eskatzea

3. ESKABIDEAK NON AURKEZTU?

Eskabideak aplikazio informatikoa erabiliz edo paperean egin daitezke. Paperean egin behar baduzue, UNIQUALen aurkeztu (San Prudentzio 8, 01005, Gasteiz), edo postaz bidali, deialdian azalduta dagoen moduan.

4. AURREKO DEIALDIETAN AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOARI DAGOKIONEZ, BERRIRO AURKEZTU BEHARRA AL DAGO?

Eskatzaileei zehazki zer dokumenturi egiten diote erreferentzia eta zer deialditan aurkeztu zuten azaltzea eskatzen zaie. Aurreko Egiaztapen-deialdian aurkeztutako dokumentuen kasuan, ez litzateke beharrezkoa izango berriro aurkeztea, beti ere, oso argi gelditzen bada zer dokumentu diren eta deialdi zehatza adieraziz. EHUko Irakasle eta Ikertzaileen Ordainsari Osagarrien deialdietan aurkeztutako dokumentuak ezin dira aintzat hartu, ez baitaude UNIQUALen era iraunkorrean.

5. EGIAZTAPENA APLIKAZIO INFORMATIKOAN GORDETAKO MEREZIMENDUEI ETA DOKUMENTAZIOARI DAGOKIENEZ, POSIBLE AL DA DATU HORIEK HARTZEA IKERKETA-EGIAZTAPENA APLIKAZIO BERRIA BETETZEKO?

Bai, aurreko deialdian egiaztapena aplikazioa bete zuten eskatzaileak berriro sar daitezke bertan eta merezimenduak kopiatu eta aplikazio berrian itsatsi.

6. AURREKO EGIAZTAPEN DEIALDIAN AURKEZTUTAKO ETA AURKAKO TXOSTENA EDO EBALUAZIO NEGATIBOA LORTU ZUTEN ESKATZAILEEK BERRIRO FIGURA BERERA AURKEZTATU NAHI BADUTE, BERRIRO BETE BEHAR AL DUTE APLIKAZIO BERRIA (EGIAZTAPENA 2009)?

EZ, eskaera eta dokumentazio osoa pasatu behar baita aplikazio batetik bestera (Egiaztapena2009). Dena den, oso garrantzitsua da meritu berriak gehitzea, egindako aldaketa guztiak errebisatzea eta beharrezkoak diren aldaketak egitea eskaera itxi baino lehen.

7. EGIAZKOTASUN AITORPENEKO DOKUMENTUAK JATORRIZKOA BEHAR AL DU IZAN?

Bai. Edozein kasutan, UNIQUALi egiazkotasun-aitorpeneko dokumentuaren jatorrizkoa helarazi beharko zaio (adibidez, posta ziurtatu bidez). Dokumentua bere osotasunean bete behar dela gogorarazi nahi diegu eskatzaileei, hau da, IZENA, NAN, HELBIDEA eta AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK atalak betez.

8. FIGURA BATERA BAINO GEHIAGORA AURKEZ AL NAITEKE?

BAI.

Pertsona bakoitzak eskatutako egiaztapen-figura bakoitzak espediente independentea osatuko du. Figura bakoitzerako dagokion eskaera eta curriculuma bete behar da, eta figura bakoitzerako egiazkotasun-aitorpeneko dokumentua igorri.

9. FIGURA BATERA BAINO GEHIAGORA AURKETUZ GERO, BEHARREZKOA AL DA ESKAERA BAKOITZAREKIN DOKUMENTAZIOAREN KOPIAK BIDALTZEA?

EZ. Nahikoa izango da alegatutako merezimendu guztien frogagiriak behin bidaltzarekin.

10. ZEINTZUK DIRA ERABILTZEN DIREN EBALUAZIO IRIZPIDEAK?

Ebaluaketa-irizpide orokorrak uztailearen 29ko 149/2008 DEKRETUAN dituzue. 2008ko abuztuaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

III. eranskina: Irakasle atxikien irakaskuntza- eta ikerketa-jardura ebaluatze irizpideak.

11. ESKARI-EGILEEI EBAZPENA NOIZ-NOLA BIDALIKO ZAIEN?

Eskari bakoitzak bere ebaluaketa-ebazpena izango du. Bertan azalduko dizuegu txostena positiboa edo negatiboa edo aldekoa edo aurkakoa den, eta zein kontratu-motatarako dagoen eginda.

Gehienez ere 6 hilabeteko epea izango dugu ebaluaketa jakinarazteko, eta zeuen etxetara bidaliko dugu.

3. MEREZIMENDUAK NOLA AZALDU

NOLA AZALDU BEHAR DIRA ESKABIDEAN ADIERAZITAKO MEREZIMENDUAK?

Eskabidean adierazten dituzuen merezimendu guztiak egiaztatu behar dituzue, zalantzarik utzi gabe, eta, horretarako, beharrezko agiriak aurkeztu behar dituzue. Jarraian dago jasota nola.

Posta elektronikoak ez ditugu egiaztagiriztat onartuko. Dena delako jardura egin duzuen erakundeak emandako jatorrizko egiaztagirien kopia aurkeztu behar dituzue.

IRAKASLE ATXIKIRAKO ADIERAZITAKO MEREZIMENDUAK EGIAZTATZEA

Atal bakoitzean eskatzen zaizkizuen egiaztagiriak eransteko, pdf agiriak egin behar dituzue, eskabideko atal bakoitzeko bana: ikerketa-jarduna, irakasle-ibilbidea, kudeaketa, prestakuntza eta euskara. Eta egiaztagirien kopia ere agiri horietan jaso.

1. IKERKETA-JARDUNA EGIAZTATZEA

Egin dituzuen **argitalpenak** honela egiaztatu behar dituzue:

- liburuak: eskabidean, gauza hauek adierazi behar dituzue: egilea edo egileak, izenburua, argitalpen-lekua, argialetxea, argitalpen-urtea, orrialde-kopurua eta ISBN. Zuk zenbateraino

parte hartu duzun: osorik zuena den, beste batzuekin batera egin zenuten, argitaratu egin zenuten, edo zuzendari-lanak egin zenituzten.

- Liburuko kapituluren bat: eskabidean, gauza hauek adierazi behar dituzue: egilea edo egileak, izenburua, argitalpen-lekua, argitaletxea, argitalpen-urtea, zenbat orrialde diren zuenak eta ISBN.

- Artikuluak: Eskabidean, gauza hauek guztiak adierazi behar dituzue: egilea edo egileak, izenburua, argitalpen-lekua, argitaletxea, argitalpen-urtea, zenbat orrialde diren zuenak eta ISBN. Argitalpenaren eragin-indizea edo erreferentziatza dauzkan datu-baseak ere adierazi behar dituzue.

OHARRA: Prentsa-argitarapenak ez ditugu kontuan hartuko, egindako argitarapenak besterik ez.

Ikerketa-proiektuak honela egiaztatu behar dituzue:

- Eskabidean, gauza hauek guztiak adierazi behar dituzue: proiektuaren izenburua, ikertzaile nagusiaren izena, proiektua zein unibertsitate edo erakundetan egin zenuten, erakunde finantzatzailea, finantzaketaren zenbatekoa, hasiera-eguna eta amaiera-eguna, proiektuan izan duzuen erantzukizuna (ikertzaile nagusia, ikertzailea, bekaduna...).
- Informazio hori guztia azaltzeko, egiaztagiri original bat erantsi beharko duzue.

Ikerketa-kontratuak honela egiaztatu behar dituzue:

- Eskabidean, gauza hauek guztiak adierazi behar dituzue: kontratuaren izenburua, ikertzaile nagusiaren izena, kontratua zein unibertsitate edo erakundetan egin zenuten, erakunde finantzatzailea, finantzaketaren zenbatekoa, hasiera-eguna eta amaiera-eguna, kontratuan izan duzuen erantzukizuna (ikertzaile nagusia, ikertzailea, bekaduna...).
- Informazio hori guztia azaltzeko, egiaztagiri original bat erantsi beharko duzue.

Beste ikerketa-jarduera batzuk (txostenak, taldeak, sareak) honela egiaztatu behar dituzue:

- Eskabidean, gauza hauek guztiak adierazi behar dituzue: jarduera-mota, ikertzaile nagusiaren izena, jarduera zein unibertsitate edo erakundetan egin zenuten, erakunde finantzatzailea, finantzaketaren zenbatekoa, hasiera-eguna eta amaiera-eguna, jardueran izan duzuen erantzukizuna (ikertzaile nagusia, ikertzailea, bekaduna...).
- Informazio hori guztia azaltzeko, egiaztagiri original bat erantsi beharko duzue.

Patenteak honela egiaztatu behar dituzue:

- Eskabidean, erregistroko datuak jaso behar dituzue.
- Patentea erregistratu eta eman izanaren kopia ofizialak erantsi.

Kongresuetan parte hartu izana honela egiaztatu behar duzue:

- Eskabidean, datu hauek guztiak adierazi: kongresuaren izena; nolakoa izan zen (nazioartekoa, naziokoa edo tokikoa); zein egunetan izan zen; eskari-egileak zer egin zenuten (hizlari gonbidatua, komunikazioa, posterra...).
- Informazio hori guztia azaltzeko, egiaztagiri original bat erantsi beharko duzue.

Hirugarren zikloko jardueretan parte hartu izana honela egiaztatu behar duzue:

- Doktoretza-ikastaroetan parte hartu baduzue, zein ikastaro eman duzuen, zein unibertsitatetan, eguna eta emandako ordu-kopurua edo kreditu-kopurua.
- Tesi bateko zuzendariak izan bazarete, tesiaren egilea, izenburua, saila, zein unibertsitatetan defendatu zuen, defendatu zuen eguna eta kalifikazioa.
- Informazio hori guztia azaltzeko, egiaztagiri original bat erantsi beharko duzue.

Beste ikerketa-merezimendu batzuk egiaztatzeko, zer lan eta zer-nolako parte-hartzea izan duzuen zehaztu beharko duzue eskabidean, eta hori egiaztatzeko ziurtagiri orijinala aurkeztu.

2. PRESTAKUNTZA AKADEMIKO, IRAKASLE-JARDUNA ETA LANeko ESPERIENTZIA EGIAZTATZEKO

Unibertsitateko irakasle izateko prestakuntza honela egiaztatuko da:

- Espediente akademikoaren kopia.
- Doktoratuaren kasuan, zuzendaria, lanaren egilea, izenburua, saila eta titulua zein unibertsitatetan defendatu den, defentsa noiz izan zen eta ateratako kalifikazioa zehaztu beharko duzue.
- Bestelako titulazio, master, gradu-ondoko ikastaro edo prestakuntzako bestelako kurtsoen kasuan, eskabidean ikastaroaren izenburua, unibertsitatea eta zein ikastarotan egin den zehaztu beharko da, bai eta ikastaro edo titulua zenbat ordu edo kreditukoa den ere.

- Hizkuntza egiaztatze, zein hizkuntzaren kurtsoa egin duzuen, titulua zein zentrotan atera duzuen eta zer maila lortu duzuen zehaztu beharko duzue eskabidean.
- Horietako edozein kasutan ere, jarduera zein unibertsitatetan edo zentrotan egin den, bertako ziurtagiri orijinala aurkeztu beharko da eskabidearekin batera. Ziurtagiri horretan, aurreko paragrafoetan esandako informazio hori guztia zehaztu beharko da, jarduera bakoitzeko.

Ikerketa-egonaldiak honela egiaztatu behar dituzue:

- Jarduera mota (doktoretza aurrekoa, doktoretza ondorengoa, irakasle edo ikerlari bisitari...), jarduera zein zentrotan egin den eta egonaldiaren hasiera eta bukaera adierazi beharko dituzue eskabidean.
- Horietako edozein kasutan ere, jarduera zein unibertsitatetan edo zentrotan egin duzuen, bertako ziurtagiri orijinala aurkeztu beharko duzue eskabidearekin batera. Ziurtagiri horretan, aurreko paragrafoan esandako informazio hori guztia zehaztu beharko da, jarduera bakoitzeko.

Doktoretza aurreko edo doktoretza ondorengo beka eta ikerketa-kontratuak honela egiaztatu behar dira:

- Jarduera-mota (doktoretza aurreko beka, doktoretza ondorengo beka, ikerlari-kontratua...), jarduera zein zentrotan egin den eta egonaldiaren hasiera eta bukaera adierazi beharko dituzue eskabidean.
- Horietako edozein kasutan ere, beka edo kontratua ematen duen erakundeak emandako ziurtagiri orijinala edo jarduera egin duzuen unibertsitateko edo zentroko ziurtagiri orijinala aurkeztu beharko duzue eskabidearekin batera. Ziurtagiri horretan, aurreko paragrafoan esandako informazio hori guztia zehaztu beharko da, jarduera bakoitzeko.

Unibertsitateko irakasle-ibilbidea honela egiaztatuko da:

- Gradu eta gradu ondoko irakasle-jarduna:
 - o Eskabidean, gauza hauek guztiak zehaztu behar dituzue: kontratuaren kategoria, dedikazio-erregimena (osoa edo zati batekoa), kontrataturiko kreditu- edo ordu-kopurua, kontratuaren hasierako eta amaierako egunak, edo

- Eskabidean, irakasten non ibili zareten zehaztu behar duzue (unibertsitatea, zentroa eta saila), irakasgaiaren izenburua, zenbat ordu edo kredituko gaia zen, eta irakasle-lanetan noiz hasi eta noiz bukatu zenuten.
- Zerbitzu-orriaren kopia bat erantsi, edo, bestela, irakasle ibili zareten unibertsitateak emandako jatorrizko egiaztagiria, aurreko paragrafoetako informazio guztia bilduz.
- Tesietan, ikerketa-lanetan edo karrera amaierako proiektuetan zuzendari ibili izana egiaztatzeke:
 - Eskabidean, gauza hauek zehaztu: lanaren egilea, izenburua, saila eta titulua zein unibertsitatetan defendatu den, defentsa noiz izan zen eta kalifikazioa.
 - Informazio hori guztia azaltzeko, egiaztagiri original bat erantsi beharko duzue.
- Irakaskuntzaren kalitatea ebaluatu izana egiaztatzeke:
 - Eskabidean, ikasgaia, zein zentrotan eman den, ikasturtea eta kalifikazioa zehaztu.
 - Ikasleen inkestaren kopia bat erantsi.

Irakaskuntzako argitalpenak honela egiaztatu behar dituzue:

- liburuak: gauza hauek adierazi behar dituzue eskabidean: egilea edo egileak, izenburua, argitalpen-lekua, argitaletxea, argitalpen-urtea, orrialde-kopurua eta ISBN. Zuek zenbateraino parte hartu duzuen: osorik zuena den, beste batzuekin batera egin zenuten, argitaratu egin zenuten, edo zuzendari-lanak egin zenituen.
- liburuko kapituluren bat: gauza hauek guztiak adierazi behar dituzue eskabidean: egilea edo egileak, izenburua, argitalpen-lekua, argitaletxea, argitalpen-urtea, zenbat orrialde diren zuenak eta ISBN.

OHARRA: ISBN-rik gabeko argitarapenak eta prentsa-argitarapenak ez dira kontuan hartuko, egindako argitarapenak besterik ez.

Irakaskuntzako berrikuntzan egindako lanak eta bestelako irakaskuntza-merezimenduak honela egiaztatuko dira:

- zer-nolako jarduera edo lana izan den zehaztuta eskabidean:
 - Pedagogia-prestakuntzako ikastaroetan parte hartzea, irakaskuntza berritzeko proiektuak prestatzea, EEES-ra egokitzeko proiektuak lantzea, mugikortasun-programetan jardutea, praktika-programetan ibiltzea. Jarduera zehazki noiz

- egin den zehaztu beharko da, ikastaroak izan badira, zenbat ordukoak izan diren, zer-nolako parte-hartzea izan den eta zein unibertsitatetan egin den.
- Irakaskuntza. Pedagogia berritzeko ikastaroak eman edo antolatzea, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan jardutea, unibertsitateko hezkuntza luzatzeko ikastaroetan jardutea, eta hizkuntza ofiziala ez den beste hizkuntza batean eskolak ematea. Jarduera zehazki noiz egin den zehaztu beharko da, ikastaroak izan badira, zenbat ordukoak izan diren, zer-nolako parte-hartzea izan den eta zein unibertsitatetan egin den.
 - Teknologia berriak erabiltzea. Jarduera noiz egin den zehaztu behar da, dena delako jarduera egiteko erabilitako unibertsitate birtuala edo web-orria ikusteko web-helbidea, eskatzaileak zer-nolako parte-hartzea izan duen, eta zein unibertsitatetan izan den.
- Modalitatea edozein dela ere, jarduera zein unibertsitatetan egin den, bertako ziurtagiri orijinala aurkeztu beharko da eskabidearekin batera. Ziurtagirian, esandako informazio hori guztia zehaztu beharko da, jarduera bakoitzeko.

Laneko esperientzia honela ziurtatuko da:

- Eskabidean, jarduera zer-nolakoa izan den zehaztu beharko duzue (besteren kontura edo autonomo moduan egin duzuen); lanean ibili bazarete, zein erakundetan lan egin duzuen zehaztu beharko duzue, noiz hasi eta bukatu den lana eta kontratua zer-nolakoa zen (lanaldi osokoa edo partziala).
- Lan-kontratuaren eta jarduera amaitu izanaren ziurtagiriaren kopia bana aurkeztu beharko duzue, edo langile autonomo gisa emandako alta eta baja, eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako alta eta baja.

OHARRA: Atal honetan, kontuan hartuko dira, soil-soilik, unibertsitatearen baitan egiten ez diren baina ziurtagiria eskatu nahi den jakintza-arloarekin lotuta dauden jarduerak.

Honela egiaztatuko da **unibertsitateko banakako kudeaketa-karguetan** egindako lana:

- Eskabidean argi eta garbi zehaztu beharko duzue zer kargu izan duzuen, zein unibertsitate, zentro edo sailtan egin duzuen lan eta noiz hasi eta bukatu den zuen lanaldia.
- Zerbitzu-orriaren kopia bat edo kargura izendatzeko eta kargutik kentzeko ebazpenaren kopia bat aurkeztu beharko duzue, edo dena delako jarduera egin duzuen

unibertsitateko ziurtagiri orijinala (aurreko paragrafoan zehaztutako informazio guztia adierazi behar du).

Administrazioko postuetan hezkuntzaren arloan eta zuen eremuko ikerkuntzan egindako lana egiaztatzeko, hauxe adierazi behar duzue eskabidean:

- argi eta garbi zehaztu beharko duzue zer kargu izan duzuen, zein administraziotan egin duzuen lan eta noiz hasi eta bukatu den zuen lanaldia.
- Posturako izendatzeko eta kargutik kentzeko ebazpenaren kopia bat aurkeztu beharko duzue, edo lan egin duzuen dena delako administrazioan emandako ziurtagiri orijinala (aurreko paragrafoan zehaztutako informazio guztia adierazi behar du).

Kudeaketako bestelako merezimenduak egiaztatzeko, kudeaketan zer lan eta zer-nolako parte-hartzea izan duzuen zehaztu beharko duzue eskabidean, eta hori egiaztatzeko ziurtagiri orijinala aurkeztu.

3. LANA EUSKARAZ EGIN IZANA EGIAZTATZEA

Euskaraz irakatsi izana honela egiaztatuko da:

- Eskabidean, irakasten non ibili zareten zehaztu behar duzue (unibertsitatea, zentroa eta saila), irakasgaiaren izenburua, zenbat ordu edo kredituko gaia zen, eta irakasle-lanetan noiz hasi eta noiz bukatu zenuten.
- Irakasle-lana egin duzuen unibertsitateko ziurtagiri orijinala ere aurkeztu beharko duzue. Aurreko paragrafoan esandako informazio hori guztia jaso behar du ziurtagiriak.

Doktore-tesia euskaraz defendatu izana honela egiaztatu behar da:

- zuzendaria, lanaren egilea, izenburua, saila eta titulua zein unibertsitatetan defendatu den, defentsa noiz izan zen eta ateratako kalifikazioa zehaztu beharko duzue.
- lana egin duzuen unibertsitateko ziurtagiri orijinala ere aurkeztu beharko duzue. Aurreko paragrafoan esandako informazio hori guztia jaso behar du ziurtagiriak.

Irakaskuntza berritzeko proiektuak euskaraz egin izana honela egiaztatu behar da:

- Eskabidean, gauza hauek guztiak adierazi behar dituzue: proiektuaren titulua, ikertzaile nagusiaren izena, proiektua zein unibertsitate edo erakundetan egin zenuten,

erakunde finantzatzailea, finantzaketaren zenbatekoa, hasiera-eguna eta amaiera-eguna, proiektuan izan duzuen erantzukizuna (ikertzaile nagusia, ikertzailea, bekaduna...).

- Berrikuntza-proiektua egin duzuen unibertsitateko ziurtagiri orijinala ere aurkeztu beharko duzue. Aurreko paragrafoan esandako informazio hori guztia jaso behar du ziurtagiriak.

Zer edo zer euskaraz argitaratu izana honela egiaztatuko da:

- liburuak: gauza hauek adierazi behar dituzue eskabidean: egilea edo egileak, izenburua, argitalpen-lekua, argitaletxea, argitalpen-urtea, orrialde-kopurua eta ISBN. Zuek zenbateraino parte hartu duzuen: osorik zuena den, beste batzuekin batera egin zenuten, argitaratu egin zenuten, edo zuzendari-lanak egin zenituzten.
- liburuko kapituluren bat: gauza hauek guztiak adierazi behar dituzue eskabidean: egilea edo egileak, izenburua, argitalpen-lekua, argitaletxea, argitalpen-urtea, zenbat orrialde diren zeuenak eta ISBN.
- artikulua: gauza hauek guztiak adierazi behar dituzue eskabidean: egilea edo egileak, izenburua, argitalpen-lekua, argitaletxea, argitalpen-urtea, zenbat orrialde diren zuenak eta ISBN.